

NBBE ZAKFZMOK©
©DIO^S ETA SMATOMI ©AZTEA1

Aztertu ta ausnartzeko asmoak,
egipenak eta gertapen batzuk

Bizia, jarrai ta eginkor, mendeetan barna aurrera doa edatzen, amaika agerpenen bidez, bertan gizonak beti yarduten duelarik; gizona biziaren zernola guzien erdian ari dala esan genezake: jayotzen da, bere nortasun osoaz morroitzen da, ta azkenez iltzen da, bere ibilketa guzia amaitzeko; oro emengoarengan, angoarengan baiio nabarituago, edo alderantziz, bafia ezinbestekoan guzientzat, eta inoiz irten ezin diten obo baten barruan. Bai, gizona bete-beterik dago bizian murgilduta, eta orren barna eten gabeko agerpenetan doakigu, naiz bere gaiezko mugarazleetan, naiz gogozko, ekanduzko ta gogo-lantzezko egipenetan; orrela, gizona bizia dan guziaren muiflean agertzen da beti; orrengatik, giza-notinaren inguruan gertatzen dan guzia atematea, oso zudugarri ta irakasgarria izan bear da, bai gertapen ortan bertan, bai gizakiaren bizi-edatzean eragiten eta bereizten duten bitarteko egikeretan.

Biziaren koskontze orokar ortan, iraunkorrek dei genitzaken egilleak dagoz, inoiz aldatzen eztiranak eta gizadi osoaren gain tai gabeko eraz daragitenak. Esate baterako:

orduak, egunak, asteak, illebeteak, urteak eta mendeak deitzen ditugun aldiaren neurriak, arauzko ta beti bat gertatzen ari dira, bakoitzerako neurkera berean, ezinbestekoan eta bizian agertzen dan beste edozein egimenetik azke. Urtearoak ere oien antzekoak ditugu, orren noraezean ezpadira ere, beren otz, bero, ezetasun eta abarren bitartez, bakoitzak gizonaren gai-bizian bere eraz eragiten, naiz zuzen naiz bizidunen azkurri ta beste bearretarako, lurrean sorrerazten diran etekifien bidez; or ere, geyago ala gutxiago zabukatzen diran mugaetan dagoen neurkera bateaz, beren eragipenaren tasuna alda lezaketen beste goraberaetaz oldoztu ezin ditekelarik; eta orrengatik neurkera ori ere baitezpadakoa bezela zeindu bear da, aldiaren neurrian be edatzen baita.

Beste aldetik, gizona Ludia deitzen dugun izarbelean bizi da (galdutako bere atsegin-baratzan), eguzki-eraketan dagoen Ludi'an, Zabaldi'an millaka igitzen eta igaroten ari diran beste ainbesteen artean. Eztakigu gure eraketan ez dagoen izarrak, Lur'eko bizian eragipenik ote duten; gu bizi geran ontan bai, ba-dakigu Eguzki ta Illargi'ak bederen Lur ganean eragiten dutela, lenengoak batez ere, argi ta berotasunaren iturburua bezala, gure bizia izan diteken bear-bearrak diralarik; beraz, Lur'eko bizi guzirako eragipen ori ari-izatea nai ta naiezkoa izan bear. Orrela, gizadiaren bizia, Lur'etik at eta Lur'eko eragipen aunitzen ondorioa bezela begira dezakegu, bearrean gaiiera, eragipen oietako bat edo beste amaituko balitz, bizirako ondorea beingoan ikusiko bailitzake ta norano eldu liteken erraz zedarritu ezinean, bana bizi orren izaeran irrikimarraka aundia araziko zuela, suntzitzeko ana, ots, iltzekoa izango litzakena.

Alakotz, Ludi ganeko bizia egille aunitzek eragina dago, ta ain zuzen oietxek dira, alkarren leyan, bere koskontzea mugatzen duenak; orrengatik, egille oien eragipenetik at, gurean ezagutzen dugun bizia ezifia dala oldoz dezakegu; eta gure eguzki-eraketan Ludi'tik at bizi or eztagoela bayeztu ere. Izan ere, gure bizia izan dedin, ba-dakigu, gutxienez, gorabera auek bearrak dirala: eguko aidea bere kimiazko antolaketaz; gorputzen azta mugarrizten duen erakar-indarra; Ludi'aren mukulua, erakar-indarraren bearrezko neurria damana; Eguzki'rano ta Illargi'rafio dagoen noraezeko tartea, ezinbestekoak

diran eragipenak izan ditezken; Eguzki'aren beroa, Ludi'rafio eltzen dan neurrian; Lur'aren zear orren erruz banatua dagoen ura; giroaren gorabera, beste eragipenekin, azkurria sorrerazteko al-izatea dagitenak; lurraren yoritasuna, gizaki ta abereen elikatzeke ain bearrak diran landareak sortu ta azi-erazten dituenak; Ludi'ak bere ardatzaren eta Eguzki'aren inguruan dagizkien igimenak, biak neurkera ta abiadura iraunkor eta aldakaitzetan gertatzen diranak; euri, elur, izotz eta aizearen eragipenak, era ta neurri ezberdinetan eragiten dutenak, lurraldeen luzeran eta zabaleran zear eta luzetasun, zabaltasun eta urtezaroen arauz, bakoitzean gozatzan ala jasaten diran ezetasun edo legortasunezko ondorioak; azkenez, giza-zozkoaren izatasun ertsia, esandako eragipen guzien bein-betiko izakaya bide dana; ta eragipen guzti oien moltzoak, gizonaren bizi-izaterako bearra dan oreka jartzen duelarik. Ez, eragipen eta bitarte guzti oien askotariko moltzoa ezta ikusten eta ezin ikus diteke, agirian dagoenez, Eguzki-eraketan Ludi'tik at.

Bana... galdera sortzen da bereala: gurea bezelakoak ez-tiran beste izarren eraketan ba ote dago bizi-eraren bat, Lur'ean ezagutzen eta bizi geran onen berdin, alakotsu, antzeko ala bestelakorik? Ba al dagoz Zabaldi'aren muga-gabeko ingurumenean, beste biziak, beste izaki oldozketari ta adinketan ari ditezkenak, giza-onetariko zeinduak diran kozko berdin, antzeko ala ezberdinak, eta adin-irispenean antzekoak izan ditezkenak?; naiz eta gizonaren jakintzak gaur arte egin dituen aurrerapen ain aundiak izan, ezifia zaigu egokia izan diteken erantzupenik ematea, ez baiezkoa ez eta ezezkoa ere. Alan eta guzti, Zabaldi'an eten gabeko birundaka ari diran aleun izarren batzuetan, askotan ala gutxitan, beste bizikerak egon ditezkelako oldoztu diteke; ta maiz mintzatzen ari dan «ovnis» oiek, bearbada, almenazko edo ustezko bizi oietatik datozkigula izan litezke; bana gaurko gure ezagupenetaz, arazo orri buruz ezin erabaki diteke ezer, eta gaur egun ezagukizuna dugu. Agian, ondorioz, zedarrri gabeko izugarria dan Zabaldi ortan dan edo dagoenaz arakatu, ezagutu ta jakiteko apeta kiligarriago ta jasangarriago biurtzen da; nun asten da edo nun amaitzen da Zabaldia?, egitan, ifiun asten edo amaitzen baldin bada; norano edatzen da eta zer edo nolako

da berak inguratzen duen osoa?; bizi geran gure Ludi'an edo zabalagoa dan gure izar-landa askoz aundiagoan dagoen izakera orokar ortatik, gizonari sor dakizkioken ezkutukiak zeintzuk eta nolakoak dira?; ta ain aundian dan gure izar-landa ori, Zabaldi'ko guzian onen txikia dugularik?

Bere azterketa aurreratuen bidez, gizonak Illargi'aren zolan bere onak jartzea lortu du, bertan egiazko bizi-aztarnik aurkitu gabe; bere lanabesa berezien bitartez, gugandik urbillen dabilzten Marte ta Artizar'en dagoenaren zerbait ezaizteko iritxi da, ondorioak urri jasotzean; eta Izarrizti'ak urruneko izar batzuen mukulua neurtu al-izan du bai ta Ludi'tik oietarafio dagoen tartea ere; tarte ori erabakitzeko erabilli bear-izan dituen neurriak nabari-erazteko diralarik. Ain zuzen, tarte oiek ain aundi ta gaitzak dirala-ta, aneurkinak milloika artuta ere bil dezaketen moltzo izugarria, neurtzeko ofiarri ain txikia izanik, izarren arteko tartekoak nolabait ateratzeko ezerezkoa zaio oso; orrengatik beste neurri-onarria artu bear-izan du, gizonaren adiraenak gutxigorabera ulertu aal dezan; eta neurri-ofiarri orri «argi-urtea» deritzazio. Guziok dakigu, ongi zedarriturik dagoelako, argiak duen abiada nolakoa dan: 300.000 aneurkin aldi-takada bakoitzerako! Nolako kopuru gaitzak bear diran, ondorioz, argi-ordu, argi-egun edo argi-urte bat neurtu al-izateko?; oiturazko neurrien bidez esateko ezina oso; gaur ain aurreratuak dagozen lanabesa bereziek egin al lezakete ori?; au idazten duenak eztaki, ta zalantzan edo du aal-izate ori. Bana Izarrizti'az jakintsu diranak, izar batzuetarako atera dituzten neurriai buruz, milloika ta milloika argi-urteetaz itzegiten dute...

Ludi guziko agerkariek zabaldu dutenez, arakaidiak zuzentzen dituztenek, «Voyager 1» deitzen dan aideontzia, gure Eguzki-eraketako Jupiter izarbeleruntz Goiko-Amerika'tik aspaldi xamarrean egotzia izan dana, onezkero izarbel orren urbil xamarretik igaro da, gero Saturno'runtz igarotzeko; Jupiter eta bere bederatzi izar-mutillak, auen arteko Ganymede ta Caqisto itzalak diralarik, aldenbeste bost milla aneurkin edo km.'ren bat dituztenak, argazkituak izan dira; lortutako argazkiak milloie aneurkin zear Ludi'ra bialdu aal-izan dira, bai ta Goiko-Amerika ta Australia'n dagozen ortzi-ikus-toki ederretan artuta ere; orrela, toki oietan lanegiten duten

jakintsuek, begiratutako argazkietatik ondorio egokiak atera aal-izan dituzte, izarbelaren eta bere izar-mutillen izakera mugatzeko, bai ta bertan eta beren inguruan egiten bide diran pisi-agerkari batzuk nolakoak diran aztertzeke asmoz. Zedarrituago dagoen zerbaiteaz mintzatzen da, ots, «kulatz gorria» deitua izan danaz, gure Ludia baiio iru bider lodiago izanik edo, ta orenlariaren orratzen aurkako zentzunean biraka ari diran zati ezberdinek egiii dagoen zerbaite igikorra bide da, bana zeatz gabeko beste igipenak ere oartzen dira oietan; guzia laspel batzuetaz eraturako odeien mordo batetik ateratzen bide dala, ta bere moltzoan mugatzera eltzen eztan naste anditzar egina.

«Voyager 1», gero, Saturno'ren urbillera eldu da, ta zeatz zudugarri geyagokoak erakusten dituzten beste mezuak bialia aal-izan ditu. Izarbel orren izar-mutillen aundiena dan «Titan» izenekoa lur izoztuta bezela agertzen da gatzugaiaz beziziki eratur dagoen egu bateaz, ta egu orren tinkotasuna Ludi'arena oso bezelakoxea dalarik; bana bere otz-beroa utz peko 200 eun-mallekoa bano gutxiagoa da. «Titan»'en gatzugaieguaren zeatza ezifia izango zitzakean Ludi'ko begira-lekuetatik, eta orrengatik agertzen da orren zudugarri «Voyager 1» aideontziak orain azertzea lortu aal-izatea.

II

Nire lana amaitzeko, Saturno'rano eldu zan aideontziak bialdu dituen urrun aietako berriak, ain arrigarriak baziran ere, goibeltasunean artzekoak dira, ta oiei buruz beste zeatzak sor litezke lenengoak zuzentzeko ala betetzeko izan ditezkenak. Eta guzti ori gure Eguzki-eraketan gertatzen dalarik, ots, gure etxean esango baikenuen, guregandik urbil noski, askoz urrutiago dagozen beste Izar-eraketaekin erkatzean.

Giza-adimena, noski, ez da gai izar-une izugarri oiek azertzeko, ta beren arteko ararteak, benetan, neurkaitzak dirala esan bear da; irudimena ere, askoz geyagorano el ditekena, ez da bera ere aski ortarako. Alan eta guzti beste galdera berriak egin ditezke: zedarrituak dagozen esandako ararte oien neurriak lortu ondoren, ain urrutien dagoen iza-

rretik gureganakoa ezagutu ondoren, izar ori biraka dabilen tokitik urbil ote dago Zabaldi'aren muga?, au an amaitzen ala asten ote da?, zer ote dago urrun-urrunean ari diran Izar oietatik urrutiagoan?, beste batzuk, asko, gutxi, besteen berdinak edo antzekoak?, eta zenbat?, eta zein ararte berrian?; Zabaldi'aren barnean, zein tokian dago gure eraketa?, erdi aldean, muturren baten aldean?; bafia ba ote dauzka Zabaldi'ak erdi ta muturrak?, ba ote du mugarik naiz aldean naiz aldian?; ez ote dira, «alde» ta «aldi»'en gogaiak, egitan, Zabaldi'aren izaera adierazteko ezegokiak?, eta bearbada ez ote dagite biek beste gogai bat, Betikotasuna izan ditekena?

Galdekizun guzti oiek, ezezagukizun larri oiek, giza-adimenari orrela agertzen zaizkionak, nun ukan dezakete burutabidezko argitze egokia?, nun Yainkoa'ren asmotan ezpada? Bera sinisten dugunontzat zalantzik ez auxe bayezteko: Ba-da Yainkoa, izan ere ba-da betidanik, eta muga-gabeko Bere almenaz guziaren irazalea da, orokar zentzunean Zabaldi'arena ta banakoan norberaren giza-nortasunarena ere. Egin digun agertaldia ere sinisten dugu gizona «Bere irudi ta antzera» irazan duela ere; ta Yainkoa gogoa dalarik irudi ta antza oiek ezin, arean, gaiezkoak izan, guban egonik, gogozkoa dan zerbaitekoan bano, apika gure adimenean; gure adiera orren almena, bidezkoa danez, betiko Yainkoa irazalearen goi-goyeneko adimenaren kirikaldi nimifioa izanik. Eta auxe da, ain zuzen, biziaren ebazkizunari aurki dakioken azalpen bakarra, orokarrean eta lurrekoan, aldian eta aldean, gizonaren adimen eta biotzean, ezina oso besterik.

Emen agerrerazten ditugun argibide ta iruzkinak ontzat ar ditezke ala ez; Yainko-ukatzalleak, Gizona'gan eta Zabaldi'an, biziaren ebazkizuna, egiteagoak izan dakizkioken beste bideetatik ulertu nai du; bafia orain arte izan liteken azalpenaz auxe da eskeifii diguna: bizia berezko izatea dala bayeztean, eta nun asi, nun amaitu ta nola ari dan aldakuntza ezezagun barna edatzen dalarik. Orra zearo aski ez dan azalpena; eta Yainkoa'ren gogaya onartu nai ez duenezkero, guzia da berarentzat itzal eta ukamenezkoa, ezintasun osoa aitortzeko bearra zaion ondorio itunaz.

Giza-sorkundea ere Yainko-ukatzalleak aldakuntzaren abu-

ru-bidetik atera ditekela uste du; aldakuntzaren aburu-bide ori, jakina, oso adimen aundiko yakintsuek adieraldu ta azaldu izan da, esate baterako, Teilhard de Chardin jaunak; bafia onek eztu Yainko'tasuna ukatzen eta izan liteken aldakuntzaren azkenean Yesukristo aurkitzen du, Yainko ta Gizona dan Yesukristo, Yainko-ukatzalleak onartzen ezteua.

Gure Euzkal-Erri'ari dagokionez, argibidezko bide arruntek ezagun-erazten dutenez —eta orrengatik asmoa ezarri-eragin zaionarena egitan ote dan jakin gabe—, Ludi zabaleko agintaria dan giziztilari jakintsu aundia dan gure Barandiaran'dar Yoseba Mikel apaiz jaun geldu, begi-etsi, goretsi ta maitatuak, euzkal-gizonaren asiera Europa'ko Cro-Magnon'-arengan dagoela uste-izan du, gure Errialde'an millaka edo ausaz milloika urte dirala sortu zana. Bafia Barandiaran jaunaren enuragabeko yakintza ain aundia danarren, eta berarenganako dugun egiazko gure begirunea osoa bada ere, ezin onar dezakegu egizat asmo ori. Eragozpena bezela orra gure euzkera ateratzen dala, Arri-aroan euzkaldunak dagoaneko itzegiten zuten izkuntza, giziztilariek agerrerazten dutenez. Bafia gure euzkeraren benetako egipenak geyago esaten digu oraindik, euzkal-itzez mintzatzen diran leku-izenak dagozelako, ta izen oiek eztira gure Errialde'aren mugaen barna bakarrik agertzen, Sortalde-Erdi ta Kaukaso'n dagozen ain urrutiko aldeetan ere bafio. Nola ori azaldu, euzkalduna gure gaurko lurreen bertan sortu bazan? Nola agertzen dira aipatu ditugun urrura-urruneko leku-izen oiek, esandako ararte guzi ori ibiltzeko izan edo zan erri-aldatzean Euzkadi'n sortutako euzkal-endak aranoko bide luze ortan ezarri bear-izan zituen bidezkoak ziran euzkal-izen jarraituen aztarnik utzi gabe?; naiz eta Trombetti jaunak Europa'ko dagozen amaika izenak euzkeraz azaltzeko duen aintzakotzat artzeko eztan asmoa izan?; nola, aipatu ditugun Lur'aren toki urruti oietarano bizi-lorrazik eman gabe?

Ba-dago gogoratzeko ere, alderantzizko zentzunean, aspaldian izan ziran Asia'ko Erri'en erri-aldatze aundien egipena, sartalderuntz eginak, eta, orokarra dan ustez, gose ta urri-aldiko aroetako egokera zallek eraginda; batzuetan gizelietako buruzagien menperatzeko guda-irriskeriek erazita, edes-

tian barna, beren oinketa ta ausiabartza lazgarrien gogorpen ituna utzi zutenek.

Gure kristau-aroaren Ill'garren mendean ipar-basatien eraso-aldiek sartaldetuntz egindako erri-aldatze-era orren aitorpen oso nabaria dugu, geyenetan Asia'ko lenengo astapena izan zutela.

Ba-dirudi erri-aldatze oiek aspaldi-aspaldian, eta bereziki Asia'ko ordoki edatuetan bearrezko gertapenak izan zirala, maizekoa izan zan gertakaria bezela, bizi-bearraren antzekoa bezela, estutasuna sortzen zan leku mugatuetan aterabiderik aurkitzen etzalako edo, giza-talde edo baltzuen oiturako bizieran irauteko sortzen ziran zailtasunak gafieratu ezinean.

Eta uste diteke, ondoriaz, Euzkal-Erria ere, bearbada, antzinako lenaldi artako lenengoko iragaille bat edo izan zala.

Beste aldetik, irudi ere ba-dirudi euzkeraren egitura oso bikana, ta batik bat bere aditz-jokoarena, gogo-lantze ta erri-lantze oso burutuen bilbakuntzaren bidea izan dala; baiia, benetan orrela izan bada, oietatik izkuntza bera bakarra da geratzen zaiguna, gure egun auen arte iraun al-izan duena, ta bere bilbean yakintzak oraindik azaldu al-izan ez duen ezkutukia daramala. Nola, noiz eta nun izan ote zan dirudinez ain osoa izan bide liteken erri-lantze ura?; ta egitan izan bazan, nola ta noiz suntzitu zan eta zergatik ere, izkuntza izanezik beste zantzurik utzi gabe?

Gizonaren abizena ta tokien izenaren artean ba-dago antzekoa dan zerbait; eta gure Erri'an, oso ezaguna da, txit sarritan biak berbera izaten dira; lenengoak gure sendia zein dan argi erakusten du; bigarrenak, agertzen dan lekuan bizi edo igaro izan zana adierazten du. Orrengatik, antzinako euzkal-izenak agertzen diran tokietan, euzkaldunak bizi edo igaro zirala erakusten digute. Ta izen oiek, beren artean ain urrutikoak diran lekuetan agertzen badira, bidezkoa dirudi Cro-Magnon'en euzko-gizonaren asmoa enuraz artu bear dala. Barandiaran jaunarenganako begirune guziaz, aipatutako iritzia berarena egiz baldin bada, ezifia zaigu zalantza ori uztea. Ta, arean, aldakuntzaren gogaya ezin onar dezakegu osoan.

Beti izan dira, gaurko ontan ere ba-dagoz eta gerokoan ere izango dira, gizonen iritzien artean ezberdintza ta zalantzak asko, naiz eta Yakintza'ren malletan gizon oiek guztiz gallenduak izan. Gaurko bizian, gurean, begiz dakusguzanak ez dira gutxi ta txikiak; eta naiz egiztatze au naiz gureak diran iritzi batzuk agerrerazteko naiak, lerro auek idaztera eraman gaituzte. Guzti au idazten duenak, noski, eztu ezagupen aski inor limurtzeko indar naikoa ukan dezaketen onarriak jartzeko nagusitasuna. Bana gogai mallean gaur dagoen egokera naasia, naiz Euzkadi gure aberrian naiz bazterretan ere, eta naas-maas ortatik, gure Erri'arentzat eta Gizadi'arentzat ere, eldu ditezken zoritxar'aundiak begiratzean, asrao oietako azpegiaz mintzatzeko berotu gaituzte, jakina geron baitan lertu aal dugunez eta gure indar urriaz. Gaurko egokera oso ondore aundikoa dala uste dugu, ta orrengatik argiren bat eskeintzeko alegifiak egitea edonorentzat utzi-eziia dan eginbidea dugula ere.

Urtubia